


FUNTSEZKO BALIABIDEAK



**Oier Arraztio
Garazi Etxarte
Garazi Aizpurua
Harriet Urdampilleta**

Funtsezko baliabideen bitartez, balorezko proposamena garatu, bezeroengana iritsi, bezeroekiko harremana mantendu eta, azkenik, diru sarrerak lortu ahal izango ditu gure enpresak.

Enpresa-proiektu bat garatu nahi izanez gero, ondorengo funtsezko baliabideak hartu behar dira kontuan:

Batetik, **externalizazioa**: Funtsezko baliabide bat kanpoko enpresak batek gara dezake kostuak merkatzeko edo enpresa baten esfortzuak balio erantsi handiagoa eskain dezakeen beste arlo batzuetan kontzentratzeko. Adibidez, telefonia mugikorreko enpresek espezializatutako enpresen esku uzten dute telefonoen fabrikazioa.

Bestetik, **kostuak murriztea**: Funtsezko baliabideek enpresa baten kostuetan duten eragina minimizatzea. Batzuetan, merkatua hobeto segmentatzeak edo gure baliabideak hobeto kudeatzeak kostuak murrizteko aukera ematen digute.

Baita ere, **hobetzeko aukera**: Produktu edo zerbitzu bat perfektionatzeko gaitasuna. Edozein baliabide hobetu egin daitekeen ustetik abiatuta, honako galdera egin behar dugu: zenbateraino interesatzen zaigu enpresa edo organizazio baten funtsezko baliabideetan hobekuntzak egitea? Hobekuntza jarraituen adibide dira, esaterako, Google eta Facebook; etengabe egiten dituzte berrikuntzak, gorenean mantentzeko helburuz.

Iraunkortasuna ere: Enpresa baten funtsezko baliabideak ordeztuak izan ahal behar dira enpresak bere jarduerari eutsi nahi badio. Adibidez, arrantzaren arloan diharduen enpresa baten kasuan, arrain-sardak berriz jartzeko denbora eman behar du, bestela, iraungitze-data izango luke negozio horrek.

Eta azkenik, **ordezteko aukera**: Funtsezko baliabideak proiektu baten funtsa dira; beraz, ezin izan beharko lukete ordeztuak izan. Ordezgarriak izatekotan, edo ez ziren benetan funtsezko baliabideak edo negozio-eredua aldatu egin da.

Enpresa baten funtsezko baliabideak ondorengo kategoriatan sailkatu daitezke:

Baliabide fisikoak: Baliabide hauen artean sartzen dira produktuak fabrikatzeko instalazioak, bulegoak, ibilgailuak, makinak, sistema informatikoak, salmentarako puntuak eta banaketa sarea.

Baliabide intelektualak honako hauek izango lirateke; markak, jabetzako ezagutza, patenteak, egile eskubideak, elkarteak eta bezeroen datu baseak. Baliabide hauek egongo lirateke kategoria honen barruan.

Giza-baliabideak: Sormena, ezagutza edota gaitasun komertziala oinarritzat duten enpresetan bereziki benetan funtsezkoak diren baliabideak.

Finantza-baliabideak: Ezinbestekoak dira eskudirua edo kreditu linea izateko, materiala erosteko, soldatak ordaintzeko, bestelako erosketak egiteko ala negozioa zabaltzeko.

Gure enpresan dauden funtsezko baliabideak behin ezagututa, negozio eredia definitzen dituztenak aztertu behar dira.

Baliabide mota guztiak gure enpresan garrantzi parte handi bat izan arren, esan dezakegu garrantzitsu edo aipagarrienak giza-baliabideak direla, gure enpresa sormenean oinarritutako enpresa bat baita. Baita ere, ezagutza eta gaitasun komunikatiboa kontuan hartu behar ditugu. Horregatik, gu lauok ezaugarria hauek lantzen saiatuko gara. Sormenari dagokionez, gure ideiak berritzen eta berriak pentsatzen jardungo dugu. Ezagutzari dagokionez, ahalik eta hobekien prestatu, informatu... egingo gara gure enpresa ahalik eta hoberena izan dadin. Eta azkenik, gaitasun komunikatiboa landu beharko dugu, nahiz eta gure taldean komunikazioa oso ona izan, errespetuzkoa batez ere.